

Goierri tarra

302. zenbakia 2006ko ekainak 9

Pako Etxeberria

ARANZADIKO KIDEA, MEDIKUA, IRAKASLEA...



Udal Euskaltegia goaz. Bazatoz gurekin?



Mikel González
Postaria

Blanca Daubagna
Jaurkitzako langilea

David Amalz
Ikaslea

Rosangela De Oliveira
Zaharbertzalea

Magdalena Cuesta
Erizaina

Javier Lejarzagi
Erretiratu

Paki Mendizabal
Etxekoandrea

Cristina Rodríguez
Langabea

Udako ikastaroak

Ekainaren 26tik uztailaren 21era (08:00-13:00)
Irailaren 4tik 29ra (19:00-21:00, EGA prestatzeko)

matrikula zabalik

Ekainaren 5etik 21era

UDAL
EUSKALTEGIAK
www.udaleuskaltegiak.net

Beasaingo
Udal Euskaltegia

Tfnoa.: 943 028100
Loinazko San Martin plaza.
zuzendaritza@beasain.net



ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

I. Fdez Ornaburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)


A. Ramirez Baigorri Dra.

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea

BEASAIN



RPS.:32/04

BERTSOTAN

Errenta aitorpena



Joxe Munduate

Errenta aitorpena aipatzen da sarri bada ez bada paper denak zuzen jarri diru beltzak zuritzen estu eta larri denak izan dezaten gure sosen berri.

Aldundian sortzen da majina bat gastu errepide ugari, hamaika lanpostu langileon patrikak diruz dira hustu kendu, kentzen digute banatzen ahaztu.

Doinua: Zortziko txikiko edozein

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L:

Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Bezeroen arreta: 943 304 346

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Ion Telleria.

5. Ingurugiro txokoa: Ingurumena

6. Aholkua: Lan merkatuan datozen aldaketak.

7. Kate motzean: Xabier Azurmendi.

8. Elkarrizketa: Pako Etxeberria, Aranzadiko kidea, medikua eta irakaslea.

14. Elkarrizketa: Luix Mari Telleria, Gipuzkoako Pilota Federazioko lehendakaria.

18. Erreportajea: Goruntz dantza taldeak 35 urte.

22. Agenda.

23. Garai batean...: XIX. mendeko historia interneten.

24. Iragarki laburrak.

26. Argazki zaharra.



Goierritarra diruz laguntzen duten erakundeak:

Altzaga, Arama, Gabiria, Gaintza,
Itsasondo, Ormaiztegi Zaldibia eta
Zeraingo udalak





Ion Telleria

***Drogak ez dira
arazo pertsonal
bat, klase, nazio
eta genero
zapalkuntza-
rako tresna
politiko bat
baizik.***

Nork drogatzen gaitu?

Azken hilabeteen hiruzpalau gazte-txe hustu dituzte, 15 gazte inguru atxilotu dituzte independentziaren alde egiteagatik eta dozenaka gazte bota dituzte lanetik hilabeteke, bi aste-ko edo ordu pare bateko kontratua amaitu zaielako. Baina, azken hilabete- an gazteotaz hedabideek (informazioa- ren kaltetan agindutakoa hedatu beste- rik egiten ez dutenek) eman duten al- bisterik garrantzitsuena Espainiako Osa- sun Ministeriotik bidalitakoa izan da: gazteok geroz eta kokaina gehiago har- tzen dugula.

Ohituta gaude gazteria arrisku talde gisa aztertzea, arriskua baita gazteria gurasoen sistema kontsumistarentzat, errebeldea baita gazteria kapitalaren mesedetera eraikitako sistemarekiko. Sistema kapitalistarentzat arriskua eta harribitxia aldi berean, batak bestea da- karrelako.

Harribitxia gara egungo gazteoi gure eskulanaren ordainez gainontzekoei baino gehiago lapurtuz diru irabazi ika- ragarriak lortzen dituztelako, gure esku- bideak (etxebizitza, lan duina...) urratuz eraikitzen dutelako euren etxe dotore eta 'mercedes' paradisua.

Horrek sortzen dituen ondorioen zu- loak estaltzeko balio du drogak. Lan- postua galtzeko beldurra, enpresarien aldetik txantaia eta umilazioa, ezegon- kortasuna... horrekin segurtasun eza eta beldurra, etorkizunerako espektatibarik eza, bizi proiekturik gabe eta momentua bizitzeko filosofia sortzen dute. Beraz, ez dezagun drogaren fenomeno arazo indibidual edo sanitario gisa aztertu, az- ter dezagun abiapuntutik hasita.

Edozein gertaeraren abiapuntua, ger- taera hori bizi duen subjektuaren errea- litatea da, abiapuntu hori aztertu ezean

gezurra esaten ari gara/dira. Beraz, drogek egungo sisteman paper zehatza hartzen dute, bizi dugun errealitate ze- hatzaren ondorio zuzena. Aipatu dugun errealitate horretatik ihes egiteko mo- dua da asteburuko 'desfase kultura', bestelako errealitate bat eraiki artean kolektibo zapaldu batek bilatzen duen ihesbidea. Eta drogatzen gaituztenek (politikari, enpresari eta gainontzekoek) beharrezko dute ihesbide hori eskain- tzea, euren esklabuak pozik ez daudela- ko eta iraultzarako arrisku bihurtu dai- tezkeelako.

Gogoan dituzue Intxaurrendoko ko- arteleko droga saltsa, Galindo eta kon- painia eta atxilotu berri duten droga unitateko *txapelgorria*? Norentzat ari zi- ren lanean? Eta zertarako? Sistemarekin ase ezinda dabilzan gazteak drogatzea, hori zen euren betebeharra, horiek zi- ren euren aginduak; orain larrialdi me- zuak zabaltzen dituzten agintari horiek emandako aginduak.

Horren aurka altxatzen den gazteria- ren errealitatea ezkatutzen da (ez da gazteon aurkako erasoen berri ematen, ez da kontatzen horri gainjarriko zaion alternatiba eraikitzen ari garela gazte- txeetan, kalean, herriz herri eta gunez gune). Drogak gero ere egongo dira, baina ez dira izango kontrol sozialerako tresna, ez dira iraultzaileak ahultzeko tresna izango... horiekin ere 'harmo- nian' biziko gara gu txikitzeke erabil- tzen dituztenekin amaitzen dugunean.

Drogak ez dira arazo pertsonal bat, klase, nazio eta genero zapalkuntzarako tresna politiko bat baizik. Eta 'arazoa' ez dute konponduko euren onurarako era- biltzen dutenek, 'arazoa' gu drogatzen gaituztenen aurka altxatuz konponduko dugu, ez bestela.



ANZIZAR, S. A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**



Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**

www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48

IÑAKI ARIN
Aseguruak



☎ **943 888 702**

Oriako Pasealekua, 20

B E A S A I N

Ingurumena

Aste honetan ospatu da ingurumenaren eguna, astelehena hilak 5 izan zen hain zuzen ere. Goierri mailan aste berdea ospatu da, hitzaldi, erreka garbiketa... interes handiko ekintzekin. Honako artikulua honetan ingurumena zaintzeko hartu beharreko ohitura batzuk eskaintzen dizkizuegu.

Gutxiago gastatu, hobeto kontsumitu

Normalean, gastua murrizteko ardura handiz kontsumitu behar da; horrek, zailantzarik gabe, eragin onuragarria izan du ingurunean. Gakoa eguneroko ekintzei ahalik eta etekinik handiena ateratzean datza, erosterakoan, edota ura, elektrizitatea edo telefonoa kontsumitzerakoan. Ez dago hutsezineko formularik, baina bai guztion artean martxan jar ditzakegun oinarri batzuk.

Gas eta elektrizitate kontsumoa

Gomendagarria da gure beharretara hobekien moldatzen den potentzia eta tarifa kontratatzea, baita korporazioak eskaintzen dizkiguten aurrezteko aukera guztiak aztertzea ere. Horretarako, beharrezkoa dugu etxetresna elektrikoaren kontsumoa ezagutzea telebista edo musika ekipa



tek ez du gehiegi gastatzen, baina ontzi garbigailu bat, mikrouhin-labe bat edo ile lehorgailu batek irensten dituzten makinak dira. Bestalde, kontsumo txikiko bonbilet abantaila handia dute bonbila arrunten aldean.

Ur kontsumoa

Ur kontsumoan aurrezteko zenbait gauza ezagutu beharra dago: garbigailu arruntak eta ontzi garbigailuak ez dira erabiltzen ondo beteta ez badaude; erabat irekita dagoen kanila batek 15 litro gastatzen ditu minutuko; kanila bat tantaka ari baldin bada ur litro bat kontsumitu daiteke eguneko; duxatzerakoan, bainatzerakoan kontsumitzen dugun uraren laurdena erabiltzen dugu.

Erosketak

Hona hemen erosketak egi-terakoan izan behar ditugun ohitura ekologiko batzuk: ontzi handiak erabili, etiketan osagai kaltegarriak ez dagoela ziurtatu, plastikorik ez kontsumitu, benetan behar duguna hartu eta ez erosi eroste hutsa-gatik.

Etxean energia aurreztu

Etxe barruan berotasuna galdu nahi ez badugu, isolatu egin dezakegu; horrela berokuntzan %40 aurreztuko dugu. Etxeko tenperatura egokiena 20°Ckoa da. Tenperatura hori gainditzen duen gradu bakoitzak %5 gehitzen dio energi kontsumoari.

Garrantzitsua da erregrulatzeko ikastea: 40°Ctan urak ia-ia erre egiten du, eta ez du zentzurik izozkailuak zero azpitik 5°C baino gutxiagoko tenperatura izateak; horiek horrela, tenperatura horietara iristeko kontsumitzen dugun energia gehiegi-keria hutsa da.

www.hiru.com/ingurumena
web orritik ateratakoa
informazioa

JAKIN BEHARREKOAK

Ekoturismoa

Ekoturismoa aisirako alternatiba egingarri bat da, negozio txiki eta ertainen sorrera bultzatu eta babesten duena. Negozio hauek landa ingurukoak nahiz hiri-koak izan daitezke. Ekoturismoa inbertsio txiki batekin jar daiteke martxan. Horregatik, lorgarriagoa da eta arrisku gutxiago dakartzatza, gainera gizartearen garapena sustatzen du, zuzentasun eta berdintasun handiagoko giro batean. Ekoturismoaren eta ekoizpenaren arteko lotura heresia da, tokian tokiko berezitasunei esker ekoiztutako produktu berrien eta ohiko ondasunen eskaintza areagotu egiten baitu. Izadiarekin eta landa ingurune bizi-antzeriarekin harremanak bilatzeko asmoz bidaiatzen duen pertsona kopurua gero eta handiagoa da eta horren hazkundea masa turismoak duena baino askoz azkarragoa da. Hori dela eta, ekoturismoaren garapenak bultzada nabarmen bat ematen dio orokorrean jardueren turistiko osoari.

Etxe bizitza ekologikoa

Oso urrun ez dagoen etorkizun batean, bioeraikuntza bezalako kontzeptuak gero eta gehiago agertuko zaizkigu etxebizitzak eraiki eta aukeratzerakoan. Bioeraikuntzaren hiru printzipio nagusiak dira:

- Energi garbi eta berriztagarriak ekoiztea.
- Energia-eraginkortasuna lortzea eta energia aurrezte argiztapenean
- Etxetresna elektrikoak eta berokuntza-instalazioak era egokian erabiltzea.

Energiaren aurrezteko ereduak:

isolatu + kontsumoak estutu +

eralgiak ezabatu + ekipoen

errendimendua optimizatu.

Pasa den maiatzaren 9an, Gobernu, Sindikatu eta Enpresarien ordezkariak Espainia mailan lan merkatua arautuko duen itunaren berri eman ziguten. Dударик gabe, eta honetan denak bat datoz, itun honek enpresen lehiakortasuna bultzatzatu, mantenduko den garapen ekonomiko maila lortu eta honekin batera ongizate maila altuago bat lortzeko helburuetara iristen lagundu beharko luke.

Hiru alorretan banatu daiteke itunaren edukia:

1

Batetik, lan kontratu mugagabeak sinatu daitezen eta lan kontratu mugatuak mugagabe bihurtzeko neurriak bultzatzen ditu itunak, honetarako, gizarte segurantzako kotizazioak murriztu eta kontratu mugagabeei pizgarriak ezarriko zaizkie.

Atal honetan indarrean jarriko diren neurriak honako hauek izango dira:

- Lan kontratu mugagabeak suspertzeko kontratu mugagabea: 2007ko abenduaren 31 bitartean sinaturiko lan kontratu mugatuek, modalitate honetan bihurtzeko aukera izango dute.

- Zuzenean finkotasuna izango duten kontratuei pizgarriak: talde honetan

16-30 urte artean dauden gizonezkoen kontratu magabeetatik ere pizgarri edo laguntzak izango dira (orain artean, gizonezkoen taldea laguntzetatik kanpo gertatzen zen). 600 eta 3.200 euroko laguntzak izango dituzte kontratu bakoitzeko (babestutako gizarte taldearen arabera) eta 4 urtetatik kontratuaren iraupen guztiraino mantenduko dira laguntza hauek.

- Aldi baterako lan kontratuak kontratu finko bihurtzeagatik orain arte genituen pizgarri eta laguntzak desagertu egingo dira. Hala eta guztiz 2006ko ekaina aurretik itundutako kontratuak eta 2007ko urtarrilaren aurretik mugagabe bihurtzen diren kontratuentzat laguntzak mantenduko dira. (2006. ekitaldian indar berezia eman nahi diote enplegu egonkoraren sorrerari). Kontratu hauek 800 euro tako laguntza izango dute urteko, 3 urtetan zehar.

- Gizarte asegurantzako kotizazioak jaitsiko dira: Langabezi kontzeptuan kotizatzen den portzentaia % 0,25 bateko jaitsiera izango du 2006ko ekainetik eta %0,25 bat gehiago 2008ko uztailetik aurrera. FOGASA kontzeptuan ordaintzen denak ere % ko 0.2 ko jaitsiera izango du.

2

Aldi baterako kontratazioan eman daitezkeen iruzur egoerak ekiditzeko, azpi-kontratazioa arautzeko eta lan eta gizarte segurantza saileko ikuskaritzari dagozkien neurriak arautzen ditu itun honek.

Arau hauen artean aipagarrienak genituzke:

- Aldi bateko lan kontratuaren bidez 30 hilabeteren barnean 24 hilabetez langile batek lan postu bat hornitu badu, lan kontratu finko moduan kontsideratuko da berau. Are gehiago, sektore bakoitzeko lan hitzarmen bitartez, lan postu bera pertsona desberdinekin lan kontratu mugatuz behin eta berriz estaltzeko mugak jartzeko aukerak izango dira. Lege hau indarrean sartu ondoren itundutako aldi baterako kontratuei izango zaie bakarrik aplikagarria arau hau.

- Formakuntza kontratuak sinatzeko adina 24 urteraino zabalduko da.

- Lan eta Gizarte Asegurantzako ikuskaritzari zuzendutako baliabideak gehitu egingo dituzte, iruzur egoerei aurre egin ahal izateko.

3

Eta azken talde batean lan zerbitzu publikoei eta langabezi egoeren babesaren



Pello Barandiaran
Gertu aholkularitza

inguruko zenbait arau ituntzen dira.

Hasieran aipamen egiten genien helburu horiek lortuko diren hala ez zalan-tzak agertu dituzte alde batetik eta besteak. Langileria ordezkatzeko duten sindikatuek, gizarte kotizazioak jaitsi eta kaleratzerako garaian ordainketak murriztea duela helburu nagusitzat arau honek dioten bitartean, enpresariak, lan merkatuaren malgutasun txikiak izan ditzakeen ondorio ezkorak azpimarratu dituzte.

Dударик ez dago, lan merkatua etengabeko aldatetan dagoela eta are gehiago egun, etorkinen eta jaiotze tasen jaitsiera moduko fenomenoak ere kontutan hartzeko faktoreak diren garai hauetan.

gasteiz
ileapaindegia

Tel.: 943 88 05 83
Hirigoien, 24 LAZKAO

Jauregi
TOLDOAK

INSTALATZAILE OFIZIALA

laza LLAZAPLUS ZENTROA

T 943 880 243 Antzizar auzoa z/g - Beasain

Xabier Azurmendi, dantzaria



“Fandango eta arin-arin musika entzutean gorputza dantzan jartzen zait”

Dantzarietzako zer da Segurako dantza txapelketa?

Urteko dantza saiorik garrantzitsuenak.

Zer du berezia Segurako txapelketak?

Dantzari denek parte hartzen dutela eta telebista dagoela bertan.

Segurako txapelketa era berezian prestatzen al duzue?

Urte guztian entrenatzen dugu berdin, halere entseiu gehiago egiten ditugu Segurako txapelketa aurretik.

Seguran irabazteko zer behar da?

Ahal duzun guztia eman eta ondo dantza egin.

Nola entsaiatzen duzue?

Nik bikotea Bergarakoa dut eta ni joaten naiz Bergarara edo bera etortzen da Zegamara.

Hanka puntak lantzeko eta eskuak tente ondo eusteko zer ariketa egiten duzue?

Ba, saiatu egin behar.

Euskal dantzarik gustukoena:

Fandangoa eta arin-arina

Orokorrean, dantzarik gustukoena:

Dantza guztiak gustatzen zaizkit, baina gehien, fandagoa

eta arin -arina, musika entzutean gorputza dantzan jartzen zait.

Txapelketarik gustukoena:

Segurakoa eta mendietako auzoetan egiten direnak.

Aureskua gustuen dantzatu duzun lekua edo ekitaldia:

Ez da ondoen egiten dudana dantza, baina, herriko zenbait ekitaldietan dantzatzen dut.

Jantziak nork aukeratzen ditu?

Normalean ama ibiltzen da zeregin horietan, baina beti nire baimena jasoaz. Gauza sinpleak gustatzen zaizkit.

Dantzarako, apretak ala abarkak nahiago?

Berdin zait, baina apretek inoiz ibiltzen naiz.

Musika bat:

Estilo guztietako musika entzuten dut.

Dantzarako bikote lagun bat:

14 urte daramazkit bikote berarekin, Janire Urbietak begarra, beraz, bera.

Herrietako festarik gustukoena?

Dudarik gabe herriko festak, San Bartolomeak.

**KONTSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIKOA**

**Goierritarrentzako
mediku zerbitzu espezializatuak**

Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60
Faxa: 943 08 55 61
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.
BEASAIN

TOLARE

URBITARTE

SAGARDOEGIA

☎ **943 18 01 19** **ATAUN**

Pako Etxeberria:

“Mediku batek sendatu, irakatsi eta ikertu egin behar du”



Pako Etxeberria 1957ko otsailaren 14an jaio zen Beasaingo Lazkaibar auzoan. Umezurtza da eta arrebak ordaindu zizkion medikuntza ikasketak. Donostiako Medikuntzako unibertsitateko irakaslea da azken 25 urteetan. Medikuntzako ikasketak bukatu eta auzitegiko me-

diku izan zen Donostian, 1981etik 1991ra bitartean. Atxilotuak bisitatu, autopsiak egin, Lasa eta Zabalaen gorpuzkinak ateratzean han zen. Aranzadi zientzia elkarrean antropologia sailean aritzen da. Orain, Espainiako Gerra Zibilean fusilatutakoen gorpuzkinak ateratzen ari da.



SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako
gida-baimenak

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

MUJKA 19

MUJKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

Beasainen, Lazkaibar auzoan, CAFen bihotzean jaioa zara.


Bai, baina Lazkibartik Ordiziara jotzen genuen Beasaina baino gehiago. Behar bada lagun gehiago ditut Ordizian, Beasainen baino. Eskolara ere Ordiziara, La Sallera joaten nintzen. Gurasoak hilda zeudenez, arreba Donostiara joan zenean berarekin joan nintzen. Batxilergoko azken urtea Donostian egin nuen.

Ze oroitzapen duzu eskola garaiaz?

Oroitzapen txarrak. Askotan etortzen zaizkit oroitzapenak burura. Zergatik jotzen zuten hainbeste Beasaingo fraileek! Ni ez ninduten jo. Ni inork ez nau jo, ez etxean eta ez eskolan. Baina haurtzaroaz daukadan sufri-menduetariko bat hori da. Gaur egun fraile hauekin egoteko aukera izango bazu, esan egingo nieke. Pedagogikoa zela esaten zuten, baina hura umilazioa zen. Zigorrean oinarritzen zen heziketa. Beldurgarria zen. Horrela funtzionatzen zuen. Katolikoan ikuspegia lurrera mortifikatzera etorri zara, sufritu beharra daukazu, bizitzan lortu nahi duzuna sufrিতuta lortuko duzu. Araua hori zen. Hezkuntzak asko hobetu du.

Handia egindakoa kon-turatzen zara esan izan dizkiguten gezurrak. Irakasleak askotan ez ziren eman beharreko gaietan jakitunak. Adibidez, bihotzak benetan nola funtzionatzen duen dakizunean, konturatzen zara, batxilerran hori erakutsi zizunak, ideiarik ere ez zuela. **Medikuntza ikasketak egitera Valladolidera joan behar izan zenuen.**

Gipuzkoa Valladolideko unibertsitate distritokoa zen, hemen ez baitzegoen unibertsitaterik. Bizkaitarrek bazeukaten, baina arabarrek eta gipuzkoarrek ez. Harrigarria zen, beste leku batzuetan unibertsitatea



Ataungo kobetara egindako bisita ahaztezina

Ordiziako eta Beasaingo eskola garaiaz ez dauka batere oroimenik onik Pako Etxeberrriak, baina neurri handi batean, Beasaingo La Salleko fraileei zor die, medikuntzarako eta ikerkuntzarako duen zaletasuna. Izan ere, eskolatik Ataungo kobetara egindako txangoa beasaindarra liluratu zuen irteera izan baitzen. “Fraileek joko bat egin zuten ikasturtean zehar. Bale batzuk ematen zizkiguten. 50 bale edukita, txangoa egiteko eskubidea izaten zen. Fraileak, komeni zitzaion eran kendu eta ematen zizkigun baleak. Beasainen, Batxilergoko 4. mailan nenbilela, nahikoa bale bagenituen txangoa egiteko. Olaberriko futbol zelaira joatea eta Murumendira igotzea jarri zituen aukera bezala. Ez genituen onartu. Orduan, Ataungo kobetara joatea proposatu zuen. Hara joan ginen, eta mutil guztiek linterna bana eraman genuen, baina ez ziguten sartzen utzi. Oihuka hasi ginen. Hurrengo larunbatean, txangoa asteazkenean izan zen, jende pilo bat joan ginen. Sartu egin ginen, noski. Niri oso polita iruditu zitzaidan. Ordiziako Mendizale elkarte-an hitzaldi bat zegoen eta joan ginen eta niretzat izugarria izan zen. Uda iritsi zenean, ia astebukaerero joan ginen”.

Kobetan barneratu eta gure arbasoen aztarnak bilatzen askotan aritu izan da, nahiz eta lan hori orain utzia duen. On Joxemiel Barandiaran ezagutu zuen. “Behin baino gehiagotan joan nintzen bere etxera. Julio Caro Barojarengana ere bai. Oso interesgarria izan zen. Guk On Joxemiel, adineko pertsona bezala ezagutu genuen, adinekoegia”.

eduki, eta hemen unibertsitate publikoa aipatzea bazarrik, eskandalurako arrazoia zen. Valladoliden milaka euskaldun ikasle geunden. Gaur egun Donostiako Medikuntzako fakultatea dena, sortu behar genuela esaten genuenean, Valladolideko negozioak hondoratu egingo zirela esaten ziguten. Pentsio asko ikasle euskaldunei esker bizi ziren. Pixkanaka sortzen hasi zen

euskal unibertsitatearen gaia.

Medikuntzako bigarren zikloa Donostian jartzea asmatu genuen Valladoliden. Erabaki zen ospital-kliniko unibertsitariorik ez sortzea eta Medikuntzako fakultatea ospitaleari lotzea. Medikuntzako lehenengo hiru urteak Leioan egiten dira eta gero ikasleei, Gasteiz, Bilbo edo Donostia erabakitzeak aukera izaten dute.

Irakaslea izatea erraza al da?

Gu pribilegiatuak gara. Guk ditugun ikasleak oso onak dira. Gu baino 100 aldiz hobeto prestatuak daude. Guk genituen hutsuneak, gaur egun gaitututa daude. Medikuntzako 6. mailako ikasleok bikainak dira. Arduratsuak. Dena dakite, asko ikasi dute. Gainera ez dituzte guk geneuzkan traumak eta defizitak. Etorkizunari

aurre egiteko gu baino askoz ere hobeto prestatuak daude. Ikasle eta irakasle arteko harremana oso erraza da nire kasuan, beti azkeneko urteetan aritzen naiz-eta.

Erakustea gainera, gero eta errazagoa da, lehen ez genituen tresnak dauzkagu eta. Gu Valladoliden, ikasgelan, 500 lagun egongo ginen. Azterketa bat egitera joan eta aurreko urteetatik hainbeste suspentso zeudenez, aldameneko kiroldegiko saskibaloi kantxan egin genuen azterketa. Gaur egun taldeak askoz ere murriztagoak dira eta harremana ere gertuagoakoa da.

Beste adibide bat ere jarriko dut: guri kongo gorri kolorea (estologiako kolore bat da) azaltzeko, gaur egun internet daukagu. Baina gure garaian, anatomia-ko klaseetan, material guztia txuri-beltzekoa zen. Gaur egun interneten, bihotzaren taupaden hotsa, arritmia bat... entzun daitezke.

Ondo prestatuak ateratzen dira ikasleak. Azken 3-4 urteetan, Donostian medikuntza ikasketak amaitu dituzten guztiek Mir-a gainditu dute. Estatu mailan egiten den azterketa da eta guztiei azterketa bera jartzen zaie. Algodoiaren proba izaten da, unibertsitate bakoitzaren maila ikusteko. Euskal Herriko Unibertsitatea eta zehazki Donostiako fakultatea, lehenengo 5 hoberenen artean dago. Mir-a gainditzen duten guztiek lana izaten dute.

Irakaskuntzaz gain, auzitegiko mediku lanean ere aritu izan zara. Aranzadin ere jarduten zara, gorpuzkinak-eta identifikatzen. Lan ugari uztartzen dituzu.

Ez dakit lan ezberdinak dauzkadan ala ez baina beti lan berdintsuak egiten ditudala iruditzen zait. Irakasle lana ikerketarekin bateragarria da. Medikuntzan obligazioa da ikastea. Nik banuen



Beasaingo Igartza multzoa

Beasaindarra da Pako Etxeberria eta gertutik jarraitzen ari da Igartza multzoan egiten ari direna. Igartza jauregia, errota berrituta, orain burdinola berreskuratzen ari dira. “Dolarea berritzea gelditzen da. Oso handia da. Jatetxeren bat-edo jartzekotan dira. Bateragarriak dira. Aretxabaletan, Mondragon Kooperatibak Otalora etxea erosi zuen, berritu eta orain konbentzio etxea da”, zehaztu du.

Arlo horretan, Beasainen gauzak txukun egiten ari direla aitortu du. “Beasaingo historian gelditzen den bakarra Igartza da. Beasainek ez dauka Bergarak, Ordiziak, Oñatik... daukan kaskorik. Hori galdua du. Ondo dago bazter hau babestea. Hor ere egin zezaketen, dena bota eta etxe bat gehiago egin, baina berria eta tradizioa, historia ondo lotzen ari dira”.

irakasle bat esaten zuena, edozein lekutan dagoen mediku batek hiru gauza egin behar dituela: asistentzia, dozentzia eta ikerkuntza. Asistentzia, gaixoa sendatzea; irakaskuntza, mediku gazteagoei erakusteko obligazioa; eta ikerkuntza. Unibertsitatean lanean aritzeak ikerkuntzarako astia uzten du. Ospitale batean arituta, guardiekin-eta, ez da erraza izaten.

Auzitegiko medikua ere izan zinen.

1981ean sartu eta hamar bat urte egin nituen, Euskal Herriko “urte glorioso” haietan. Justizian frankismoko aztarnak eta zerbait aldatu nahi zebiltzanen artean lan egin nuen. Baina urte ba-

tzuk badira, unibertsitateko irakasle lanean bakarrik ari naizela. Doktoradutzako Tesia egin eta unibertsitatean plaza finkoa eskuratu nuen, utzi egin nuen auzitegiko medikuaren lana. Kriminologia institutuan ere aritzen naiz.

Auzitegiko mediku garai hartaz daukadan oroitzapena da, denetik egin beharreko enpresa batean lanera joatea bezala zen. Gipuzkoan gainera hiru mediku besterik ez geunden. Gaur egun 5 daude. Guardiak astebetekoak izaten ziren eta denetik ikusten zenuen. Ezin nintzen denera iritsi. Baina horrek ikasteko balio izan zidan. Medikua askori entzun diet hori. Larrialdie-

Etorkizunari
aurre egiteko
gu baino
prestatuagoak
daude gaur egungo
ikasleak”.

tan lan eginez gero, gauza ezberdinak ikusteko aukera izaten da, eta jakina, ikasteko. Niri ere antzeko zerbait gertatu zitzaidan. Denetik ikusi nuen. Tortura kasu asko ikusitakoa naiz.

Auzitegiko mediku zinen garaian, Lasa eta Zabala kasua argitzea egokitu zitzaizun.

Lasa eta Zabalaren kasua gertu-gertutik bizi izan nuen. Epaitegian nengoenean, Cumbre jauregitik oso gertu, gertatzen ari zen gertatu zena. Hiltzeko erabakia hartzeraino torturatzen ari direla jakitea, broma bat izango balitz bezala... Estatu soberano batean, Frantzia, bahituta... Hori baino giza eskubideen urraketa handiagorik ez dut ezagutzen: Estatuko funtzionario batzuk, Estatuko diruarekin, agintean zegoen Gobernu-ko agintari politikoen eza-gutzarekin, beste herrialde batera joatea erabakitzen dute, Europara, bi gazte bahitu, ekarri, torturatu eta torturaldia hain izugarria izan denez hiltzeko erabakia hartzea, kalean ezin direlako egoera horretan utzi, desagerrarazi, hemendik ez dakit zenbat kilometrora dagoen zulo batean lurperatu... Nik uste nuen inoiz ez zela argituko kasu hau, baina zortea izan genuen. Historia hura horrela gertatu zela garbi geneukan, zertxobait pentsatzen duen pertsona orok.

Felipe Gonzalezek esan izan du, tortura ez zela oro-

Lasa eta **Zabalarena baino** **giza eskubideen** **urraketa** **handiagorik ez dut** **ezagutzen**

korra. Horixe behar genuen. Kasu bakar bat egoteak arduratu beharko luke. Mekanismoak egon behar dira horrelakoak ez gertatzeko. Jakina, aldatzen joan da.


Auzitegiko medikuek profesionaltasunez jokatzen al dute?

Humanitatea bi taldetan banatzen da horrelako kasuetan, Amnesty International-ek esaten duen bezala: sinistu ezin dutenak eta sinistu nahi ez dutenak. Ia tartekorik ez dago. Euskal Herrian, Gipuzkoan, Goierrin hori badakigu gertatzen dela, bizilagunari gertatu izan bai lekiok. Gu hemen bizita, Murciako batekiko ikuspegi ezberdina eduki genezake. Ezberdin ikusten dugu. Gai hauei dagokienean, gauzak asko aldatu dira baina oraindik askoz ere gehiago hobetu liteke. Nahikoa da norbait pentsatzen jartzea. Politiko arduragaberen batek esango du, demonstratu diren kasuak oso gutxi direla. Badakit, baina badakigu hori gertatzen dela eta probatzen direnak gutxienak direla. Baina bide horretatik, proba historikorik ez dagoenez,

frankismoan ere ez zela inor torturatu esan daiteke. Ez dago inor zigorturik. Gaur egun ere oso gutxi frogatu dira eta inor gutxi kondenatu da. Eta kondenatu dena, karguz igo dute. Zizurkilgo Joseba Arregi torturatu eta hil zuen polizia 1981ean, demokrazian, eta duela hilabete batzuk, Santa Cruz de Tenerifeko komisariako goi komisario burua izendatu dute. Herrialde normal batean, egunkarietako titularra izan beharko luke. Baina ez, gai nagusia, Realak golik ez duela sartzen da.

Gaur egun, telebistan ikerketa zientifikoko telesailak modan daude.

Oso ondo eginda daude. Telesail horrek daukan onena da, lehenengo aldia dela, ikerketa kriminaleko gaiak irudi-menaren eta ikerketaren bidez konpon-tzen direla. Orain arteko telesailetan arazoak zaplaztekoekin konpondu dira. Guri normalean iruditzen zitzaigun, poliziak paliza bat ematea. Hori lotsagarria da. CSI telesaila pedagogikoa da.



Aralar ukiezin

Aralarko pisten polemika izan zenean, Aranzadin zegoen Pako Etxeberria. Zientzia Elkarteak egindako txostenaren arabera, pistarik ez litzateke egin behar Aralarren. "Nik uste dut, Gipuzkoak, espazio batzuk erabat babestu behar dituela. Ezin da inongo arrazoirik egon ez babesteko. Jabetu behar dugu, espazio batzuk, sakratuak izateaz gain, inolako baldintzatan ezin izango direla aldatu. Nik uste dut hori, batez ere, Aralar dela. Ernio eta Aizkorri ikutuak daude".

Artzaintzaren birmoldaketa

Era horretan, Aralarko artzaintzaren birmoldaketa egitea eskatzen du. "Aralarren artzainak daude. Bai, eta zer! 27 artzain bizi dira. Askoz ere gogorragoa izan zen itsagintzako industria birmoldaketa. Askoz ere dramatikoagoa. Eta egin dugu, kostu sozial ikaragarriarekin, alternatiba ezberdinak bilatuz. Kostan lan egiten duen langileak birmoldatu egin behar izan du, arrantzarako eta itsasontziak egiteko hainbesteko gaitasunik ez zegoelako. Ikaragarriko drama izan zen. 27 direla? 27rei, egin behar zaiena da, banan banako irtenbide plana, artzaintzan baldintza hobeeetan jarrai dezaten. Zaharrenak, aurre jubilatuta egin behar lirateke. Gazteenak, eta artzaintzatik profesionalki bizi nahi dutenak, lagundu egin behar dira, dirua eman, laguntza osagarriekin, esplotazioa arautua izan dezan bermatuz. Txindokiren ondoren txabola bat badu artzain batek, merkeena da, txabola beste leku batean jartzea, irisgarritasun egokia duena. Baldintza biosanitario guztiak betetzen dituen. Hori ezinezkoa da Txindokiren ondoren egitea". Beraz, pistak egitearen aurkakoa da Etxeberria. "Pistei ezetz esan behar zaie, Aralarren jabeak garelako. Artzainak ez ditugula ulertzen esaten zaigu. Baina nork egiten ditu gaztarik onenak? Nork irabazten ditu lehiaketak? Aralarren daudenak ez, esplotazioak Gabirian, Orendainen... dituenak baizik. Nahiz eta hilabete oso gutxi batzuk Aralarren egon, horregatik ez da pista egin behar. Komentzitu egin behar dira artzainak, beraien ogibidea ekonomikoki errentagarria izan daitekeela, lagundu egin behar direla... baina horren ordez, zenbait gauzek ezin dute orain bezala jarraitu", azpimarratu du.

Autowag




☎ 943 888 254
 ☎ 943 888 266
 Faxe: 943 888 105
 N-1 errepidea, 419 Km
BEASAIN

Gerra zibileko Zaldibiako gorpuzkinak: “Beasaingo gazteren batena den susmoa dago”

Aranzadi Zientzia Elkartea memoria historikoa berreskuratzeko lanean ari da. Pako Etxeberriak, gerra zibilean hildakoen gorpuzkinak bilatzen eta identifikatzen lan egiten du. 2000. urtean hasi ziren horretan. “2000. urtean, Leonera joan ginen. 13 zibilen gorpuzkinak zeudela esan ziguten. Handik, korronte bat sortu zen. Gero Asturiasa joan ginen eta ondoren sortu zen Zaldibiako kasua. Ni ordura arte jabetu gabe nengoen. Jende asko hil zela bai, baitaila ezberdinetan. Baina ni ez nintzen konturatzen es-traofizialki hil zen jende pilaz”.

Duela 10 bat sortu zitzaion Etxeberriari 1936ko gerra zibilaz jakinmina: “Beasainen egindako erailketen inguruan artikulua bat irakurri nuenean. Atxiloketak egon eta batek alde egitea lortu zuen eta honek eguneroko batean, jendea nola hil zuten kontatzen zuen. Askok, inongo arrazoirik gabe hil zituzten, momentu hartan han egoteagatik. Beñaran, Beasaingo Guardia Zibilen burua ere hil zuten. Horrek zer pentsatua eman zidan. Bergararik etorri zen Beñaran errepublikarra zen eta frankistak etorri zirenean zenbait guardia zibil garbitu zituzten. Ikuskan irakurri nuen artikulua eta txunditu egin ninduen. Historia hauek geureak dira. Nire aitaren, nire familiaren, nire bizilagunen... historia. Nik nire lehengusu nagusiagoei entzun diet, gerrak Lazkaibarraren harrapatu zituztela, haurrak izanda, etxean egon behar izan zuten atera ere egin gabe, osaba baten bila etorri zirela... Nire osaba bat, bizitza osoan exilioan bizi izan da”.



2002ko irailean Zaldibian aurkitutako gerra zibileko gorpuzkinetariko bat Beasaingoren batena ote zenaren arrastoen atzetik dabilta Aranzadikoak. “Oraindik ez dakigu zehaztasun osoz. Nafarroatik, Altsasutik barrena, errepublikar askok alde egin zuten, Gipuzkoara. Gasteiz eta Iruña frankisten esku zeudenez eta bide naturalena Gipuzkoan sartzea izan zen. Goierrin nafar errepublikarrak egon ziren eta horietako bat izan liteke”.

Gorpuzkinen nortasuna aurkitzeko, metodologia unibertsala jarraitzen dute. “ADN-aren bidez ziurtasun osoa du diagnostikoa. ADN-a erabiliz gabe, identifikazioa hurbilketa egiten da. Lasa eta Zabala-aren gorpuzkinak zirela esan nuenean, zenbait auzitegi-ko medikuk, gehiegi arriskatu nuela esan zidaten. Baina arriskatzea al da, 20 urte ez dituzten bi gorpuzkin, biak gizonezkoak, ile beltza, bati hortzak falta zaizkiola dakizunean, eta besteak hortzetan patologia bat duela dakizunean... Huts egin dezaket, baina errore marjena oso murrizta

da, ia ezinezkoa baita baldintza bereko beste bi gizon-eko egotea...”, zehaztu du beasaindarrek.

Emozio ikaragarria

Gorpuzkinen nortasuna ezagutzean, familiartekoei “emozio ikaragarria” sentitzen dutela dio. “60 urtean etxean inork ez ditu ikusi eta pentsatu zer sentituko duten. Amets bat bezala iruditzen zaie. Espainiar estatuan gainera eskertu egiten dute Euskal Herritik joaten garelako. Zenbait kasutan gorpuzkinak aurkitu ditugu baina artxiboetan ez dugu paperik aurkitu. Zenbait artxibotan aurkitutako argazkietan, familia batzuk

ikusi izan ahal dute, beraien aitaren argazki bat. Eta berak idatzitako zerbait, bere sinadura...”. Azkenaldian, Ferrolgo artxibategian datu asko aurkitzen ari dira “eta kasu gehienak azalduko dira. Ikertzen ari dira etengabe”, zehaztu du. Hori bai, “kasuen %10-15a bakarrik aztertuko dugu. Be- launaldi osoaren adierazgarria izango dira”.

Heriotza baino gogorragoa

Pako Etxeberria ohitua da- go hildakoei lan egiten. Hala ere, badu teoria bat: “badirudi, gogorrera heriotza dela. Bai, hori izugarria da. Hildakoren baten familiartekoei egonda, bere amak albistea entzundakoan zer pentsatu zuen galde- tuta, atxilotu zutela, desa- gertu zela jakitean, ama esateko erotu egin zen. Ho- ri da gogorra. Gogorra ez zen heriotza, baizik eta bi- zirik gelditzen direnen sen- tipena, diktadura ezarri zela eta bizitza oso bat iraun zuela. Jende askok esan izan digu gogorrera ez de- la gerra izan baizik eta ge- rra galdu ondoren, Franco botatzeko, nazioarteko ko- munitateak ez zuela ezer egin ikustea. Kartzelan eta exilioan zeudenek, uste izan zuten Mundu Gerraren ondoren Espainian sartuko zirela. Nazio Batuek horrela egiteko asmoa zeukan. He- rrialde guztiek zekiten Francok naziei lagundu zie- la eta uste zuten, naziei egurra eman ondoren, Francori emango ziela. Bai- na ez zen gertatu, Amerika- ko Estatu Batuak, Sobiet Batasunarekin gerra hotze- an sartu zelako eta AEBri interesatzen zitzaion, Euro- pa hegoaldean, eskuina agintean egotea.”.

DR. JOSE
GISASOLA

3998 Elkartokidea



OSTEOPATIAN MEDIKUA

BIZKARREKO MINAREN TRATAMENDU NATURALA
Lumbalgia, Hernia Diskala, Zefalea, Migraina, Artrosia, ATM

Osteopatia lumbalgia, hernia diskala, bizkarreko zein buruko mina, artrosia eta antzerako ondoezak, ezur eta nerbioetan sorturikoak, sendatzen dituen medikuntzaren espezialitatea da. Gure eginkizunekin zuzenki erlazionaturik dauden eta bizi kalitatean eragin handia izan ohi duten minak gainditzeko laguntzen digu medikuntzaren alor honek.

Jose Gisasola osteopatia medikua da eta urteak daramatza tratamendu naturalez baliatuz gisa honetako gaitzekin lanean.

Aurrez hitzordua hartuta:

629 45 20 53 - jgisasola@telefonica.net

Andra mari, 13 Sol.Art. Ezk. / 20200 Beasain (Gipuzkoa)
Urbietan, 39 - 1. Ezk / 20006 Donostia (Gipuzkoa) / T 943 471 885

faktore



ACDA

ANTONIO DELGADO DISEINU ALTZARIAK
SUKALDE GUNEA

Jose Miguel Iturrioz, 16 Behea
20200 Beasain Gipuzkoa
T/F 943 027 626

DISEINUA SUKALDEAN

faktore



Luix Mari Telleria Gipuzkoako Pilota Federazioko lehendakaria

Urte eta erdi darama Luix Mari Telleria segurarrak, Gipuzkoako Pilota Federazioko lehendakari karguan. 2004ko abenduaren 13an izendatu zuten. Jubilatu berritan harrapatu dugu segurarra eta hemen-

dik aurrera, lehendakari karguari buru belarri heltzeko asmoa dio. Aurten-go sanjoanak, etxetik urruti pasako ditu, Argentinara joatekoa baita datoren astean, Euskal Etxeek antolatutako jaialdi batean parte hartzera.




Logela, egongela
eta sukaldeko
altzari nahiz
osagarrietan
aukera paregabea

Altzariak neurritan

Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47
Antzizar-Katea, 5 **BEASAIN**




Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)
659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA



Nola iritsi zinen Gipuzkoako Pilota Federazioko lehendakari postura?

Animatu egin ninduten. Lehen ere askoz ere gertuagotik jarraitzen nuen pilota eta mundu hau ahaztu samar neukan, baina bila etorri zitzaizkidan. Delegadutarako ere izango zela pentsatzen nuen, baina lehendakaritarako proposamena egin zidatenean, ezezkoa esan nien. Berriz ere saiatu ziren azkenean, baiezkoa eman nuen. Niretzat ezustekoa izan zen. Gustura nabil, jende ona bilatu dut eta inguruan.

Zer moduzko esperientzia izan da orain artekoa?

Kargua hartu nuenean, urte eta erdi gelditzen zitzaidan jubilatzeako eta baldintza jarri nuen tarte horretan gauza handiegirik ez nuela egitekotan. Orain bete-betean betetzeko moduan nago. Baina 6 laguneko ekipo tekniko ona dago, eta gehiena beraiek egiten dute.

Firma bota eta kitto orduan.

Askotan bai (dio parrez). Aurkezpenak egin, erakundeekiko harremanak, sari emateak, Euskadiko Federazioko batzarretara joan... Horiek dira nire lanak. Eusko Jaurilaritza pilotari buruz-

ki plan estrategikoa egiten ari da, Xabideren bidez. Hor ere parte hartu beharko dugu, zehazten diren ekin-tzak aplikatzen.

Zein egoeratan aurkitu duzu Federazioa eta pilotata?

Gipuzkoako Foru Aldundiak onartuta duen 2004-2007ko proiektua burutzerazartu naiz. Eskola kirola, kirol federatua, lehiaketa arloa, Gipuzkoako selekzioa, partaidetzako kirola edo kirol herrikoa, emakumea, kirol egokitua, euskara, komunikazioa, kalitatea, testugintza eta ikerketa. Kirol egokituari adibidez oraindik ez zaio heldu. Gorpildun aulkietan palaz jokatzeari badoela esaten dute. Ideiak hor daude eta bideratu egin beharko dira 2007ra bitartean.

Emakumeen arloari ere heldu diozue eta nesken-tzako pala eskolak martxan daude. Goierri, Atanuen.

Bai, 10 eskola daude. Eskuz eta palaz, 10 herritan ari di-

ra. Euren artean lehiaketak egiten dituzte eta ondo ari dira.

Eskola kirolaren barruan, behar adinako garrantzia ematen al zaio pilotari?

Behar adina bai. Ez dakit asmatzen den ala ez. Gipuzkoan pilotaririk ez dela ateratzen esaten du jende askok. Bat edo beste badaude, baina guk Federazio bezala nahiago dugu ahalik eta jende gehienak praktikatzea. Ez dakit zergatik ateratzen diren hainbeste pilotari Nafarroan. Izan liteke, 'ruralagoa' delako. Hemen konpetentzia izugarria dago beste kirolekin. Futbola, saskibaloia, eskubaloia, ingelesa, musika... Egia da lehen baino jende gutxiago ibiltzen dela. Beharbada horiek izan daitezke handikapak. Baina pilotariak irtetea baino garrantzia handiagoa ematen diogu jendeak praktikatzeari eta jendeak lizentziak edukitzeari. Guk nahiago dugu bat ona baino, 30-40 haur kaxkarrago

ibiltzea Pilota Eskolan. Baina ibil daitezela, beharbada hainbestetatik bakarren bat aterako da eta.

Eta kantitaterik ba al dago?

Behar adina ez, behar adina lizentzi ez dago. 1.400 lizentzi egongo dira Gipuzkoan. Infantiletatik afizionatuetara bitarteko lizentziak egiten ditugu guk, modalitate guztietan. Erremontea, pala, esku, xare, errebote... Profesionalekin ez dauka Federazioak zerikusirik. Adibidez, Irlandan 10.000 lizentzia omen daude. Hemen Euskal Herri mailan, pilota sakratua izanda, ez dira hainbeste egongo. Gure teknikoek esaten dutenez, lizentzia kopurua igota, asko praktikatuz gero, irtengo direla pilotariak.

Azpiegiturek ba al du zerikusirik emaitzan? Nafarroan, herri askotan, herri erdian pilotalekuak daude...

Niretzat ba dauka horrek zerikusirik. Seguraren kasuan, geuregandik hasita, pilotaleku berrian askoz ere gutxiago jokatu dugu. 1982an inauguratu zen pilotalekua eta niretzat aparte egiten da. Gurasoa eta umea hartu behar dira kontuan. Lazkaon, adibidez, fenomeno dago, orain ater-

Hobe da Pilota eskolan pilotari on
bakarra baino, 30-40 kaxkarrago aritzea.

Pilotaria eta pilotazalea

Luix Mari Telleria segurarrak gertutik bizi izan du beti pilota. Bai jokatzuz, bai ikusiz eta gozatuz. Herriartekoetan txapela irabazitakoa da, adibidez. Dena den, pilota asko aldatu dela dio. "Guk gure garaian, beste konturik ez genuen erabiltzen. Eskolatik irten eta frontoira joaten ginen. Arbola-datik pilota bota eta zeinen pilotak frontisa jotzen zuen hura zen, aurrelari; besteak atzean. Baloirik ez geneukan, dirurik ez genuen eta. Pilotak etxean egindakoak izaten ziren. Asko aldatu da".



1973an herriarteko txapelketa, Hernaniren aurka, irabazi zuen Segurako taldea. Ezkerretik hasita 4.a da Luix Mari Telleria

pea jarrita gainera! Gurasoak bertan daude. Gertutasunak asko balio du, edozein momentutan pilota hartu eta jokatzera joateko aukerak asko esan nahi du. Seguran, Sanjoanak alderako bukatuko dute frontoi zaharra berritzen. Estalperik ez dauka, baina ikusiko dugu. Dena den, nik uste, taldeen funtzionamenduak zerikusia handia daukala. Boluntarioko lan handia eskatzen du, eta hori gero eta gutxiago dago. Gure belaunaldia bukatzen denean ez dakit nor egingo duen.

Zer moduzko harremana dago klubaren artean?

Lehenengo lehendakariarekin nahikoa gorabehera bazeogen klub batzuekin. Oraindik ere ez daukagu nahikoa gerturapenik. Saiakera batzuk egin ditugu. Zuzendaritza batzordea osatzerako emakumea, epailea eta eskualde bakoitzeko klubaren ordezkariak sartzea nahi genuen. Bilerak ere egin genituen, baina ez genuen lortu. Beste saiakeraren bat egin beharko dugu, baina bustitzen dena, bere etxean bustitzen da. Gainera, badaki federazioan, hitza edukiko lukeela baina botorik ez. Hartuemanak, nik uste onak

dauzkadala, oraindik behintzat ez da ezer pasatu eta.

Erakundeekin harremanak aipatu dituzu. Zer moduzkoak dituzue?

Gipuzkoako Diputazioarekin eta Kutxarekin harreman onak ditugu. Aurten Segurako udalarekin ere bai, 750. urteurrena dela eta, Gravn torneo eta Gipuzkoako txapelketa guztietako finalak Seguran jokatzea hitzartu genuen. Segurako pilotalekuaren inagurazioko partidua ere Federazioak hartu du bere gain. Ahalegin handia egin duela iruditzen zait Segurako udalak. Foru Aldundiarekin ere harremana zuzena da. Sei lagunekoa lan taldea daukagu eta soldatak ateratzeko, Federazioak ez dauka ahalmenik. Aldundiak derrigorrean jarri behar du, zenbaki handiak dira eta. Nahikoa gustura nago alde horretatik. Kutxarekin ere harreman zuzena daukagu.

Jendeak lagunartean palaz jokatzeko du baina ez da federatzen.

Oso erraza da federatzea, ez dago azterketarik egin beharrik. Federatu beharra dago, erremintaren batekin edozein istripu, garantizatu egiten du fitzak. Begi galtze bat, begi kolpe bat... Federatuta egonez gero, aseguru edukiko duzu. Fitxa izatea beharrezkoa da, eta gainera ez da garestia. Jendeak lotura aipatzen du. Gustatuz gero, badaki zer daukan, torneoren bat antolatuz gero parte hartu. Torneo herrikoia adibidez, eskuz eta palaz ari dira jokatzeko. Segurako bikote bat, finalerdietan dago. Eskuz pilota goxogorekin ibiltzen dira. Lehen pilotan ibilitakoak, koadrila planean jokatzeko dutenak... horiek fitxa atera eta aseguruak kubritu egiten die. Beraien mailan jokatzeko dute. Astearen behin pilotan jokatzen duen pilotariak irtenbide bat dauka.

Komunikabideetan beti betikoak ateratzen dira. Irujo, Aimar...

Oraindik ere konpondu gabeko arazoa da guretzat. Ez da kontua partiduen ematea bakarrik. Komentarioak ere asko balio izaten du, parte hartzen duenarentzako behintzat. Hitza egunkariekin ahalegin bat egin nahi dugu, eskualdekoak direnez. Zaila da. Momentu honetan Irujo eta Aimar besterik ez daude. Herriarteko txapelketak jarraipen zabalgia izaten du, herrietako kronikak daude eta horretarako.

Segurak irabazia du Gipuzkoako Herriarteko.

Bai, lau aldiz. Zortzi finaletan egon gara: lautan irabazi eta lautan bigarren. Baina joan dira kontu horiek! Momentu honetan, goitik beharako zuloan dago Segura. Boladak izaten dira. Gipuzkoako Herriarteko txapelketan, 1973an final bat jokatu nuen, eta 1976an beste bat. Hurrengo finalak, 1990. inguruaren bueltan izan ziren. Pentsa ze tartea! Martin Alustizatik hurrena Xabier Imaz izan zen. Jaiotze tasak ere eragina izan du.

Zer moduzko egoeran dago pilota Goierrian?

Pilotalekua gertu izateak asko balio du, edozein momentutan pilota hartu eta jokatzera joateko.

Seguran nahiko lanekin. Mutikoak badabiltza baina guk nahi duguna ez da ateratzen. Federazioak badauka klubena arteko harremana bultzatzeko asmoa, baina nahiko zaila da. Lazkaon oso ondo dabilta, nahiz eta tradizio gabeko herria izan. Zegaman pizten ari da berri ere. Beasainen ere badabiltza Mendiarekin. Ordizian erreminta bai, baina eskuz, hor dabilta. Ataunek ere izan zuen bultzada bat baina horretan gelditu da.

Lau urteko etapa honetan zer gustatuko litzazuke lortzea?

Ez daukat markatuta. Ona izango litzateke, Gipuzkoako selekzioak, GRAVN-en lehenengoak izatea, pilotalekuan eta trinketea. Gipuzkoako selekzioaren suspertzea izango litzateke.

Eta Herriarteko txapelketa Segurak irabaztea?

Hori herritar bezala. Parte hartzea gustatuko litzaidake, irabaztea zaila ikusten dut. Zozketa egiterakoan, Segura falta izaten da. Hala ere herri txikiena izateko, gehien parte hartu izan duen laugarren herria izango da Segura. Donostia, Azkoitia, Arrasate eta Segura izango dira gehienetan parte hartu dutenak. Orain lau urte daramazkigu parte hartu gabe.

Seguraren 750. urteurrena dela eta GRAVN txapelketako partiduak jokatu dira Seguran.



Oso flojo joan da. Oso jende gutxi joan da ikustera. Selekzioekin ere ez gara oso gustura ibili. Kanporaketak ordezkoeekin jokatu eta final aurrekoa eta finala titularrak. Saria, titularrentzat alegia. Hori ez zait ondo iruditzen. Berriro planteatu beharko dugu datorren urterako, Gipuzkoako selekzioak nolakoa izan beharko duen. Ikusle aldetik ere, gaizki. Oso jende gutxi joaten zen ikustera.

Zaletasuna ere gutxitzen ari al da?

Telebistan ikusteko bai, denok asko ulertzen dugu. Baina nik zera esaten dut,

gauza bat afizioa da eta beste bat, herri txikiotan, edozein elkartek-edo zer-bait antolatzen badu, babesa ematea moralki. Horrelako ekintzak babesten ez baditugu, hurrengoan ezin dira jarria. Eta gero, herrian ez dela ezer egiten kritikatzaren aritzen da jendea. Jarritakoan ez badugu bultzatzen... Nahikoa frakasoa izan da.

Orain Sanjoanetan, Euskadi eta Irlandako selekzioak lehiatuko dira Seguran.

Modalitate horretan ez da hemen jokatzeko. Txaparik gabe, eskuz, pilota arinago-

ak... pilotalekuan txapa kenduko dute eta beheago jarri. Modalitate honetan itxura denez asko jokatzeko da munduan eta beste herrialde batzuekin harremana edukitzeko aukera ona izango da. Eusko Jaurlaritzaren ekimena da, Euskadiko Federazioarekin batera. Modalitate hori kanpo harremanetarako erabili nahi dute, egunen batean Euskadiko Federazioa aurrera ateratzeko. Ez dakit zenbaterainoko borondatea dagoen Eusko Jaurlaritzan euskal selekzioa aurrera ateratzeko. Baliteke horrelako hartuemanekin gure sarri bultzatzea. Nik ez dut ikusiko, Argentinara noa eta.

Zertara zoaz Argentina-ra?

Ekainaren 19an joan eta 27-28an etorriko naiz. Gipuzkoako Foru Aldunditik etorri da ekimena. Joan zen udan Donostiako Beteranoren atletismo txapelketan Argentinako Rosario herrikoekin harremanen bat eduki zuten. Euskal kirolarekin jaialdiren bat antolatu dute Euskal Etxeek. Euskadi mailan egin nahi zen baina Jaurlaritzak ez duenez babesten, Gipuzkoa mailan goaz, Foru Aldundiak heldu dio eta. Lau pilotari behar zituztela esan ziguten, bikote bat paleta argentinan jokatzeko duenak eta beste bat, larruzko paletan. Ni ere tartean joango naiz, Federa-



ASEPLAN S.L.
A HOLKULARITZA - ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA

Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea
BEASAIN
Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g

Goierritarra

943 88 96 12

goierritarra@topagunea.com


hitza

943 16 00 56

goierri@goierrikohitza.info



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

Gabiriko Goruntz: 35 urte dantzan



Apirilean ospatu zuen Gabiriko Goruntz dantza taldeak sortu zeneko 35. urteurrena. Goruntz taldearen iragana, oraina eta etorkizuna elkartu ziren festa giroan. Ondorengo lerroetan, 35. urteren errepaso laburra egin dugu,

eskualdeko dantza talderik zaharrenaren historia. Garaiak asko aldatu dira, baina belaunaldiz belaunaldi gabiriarren elkar-gunea izan den dantza taldeari eutsi egin zaio, oztopoak oztopo, eta Udalaren eta elkarteen diru laguntzari esker.

Aseguru konneduria

SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE

Elosegi, 1- behea
Tfnoa.: 943 88 86 20
Tfno. mugikorra: 609 49 14 41
Faxa: 943 88 91 18
LAZKAO

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

txekin

www.txekin.net

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 2 behea
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble

ajentzia

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA

1971. urtean sortu zen Goruntz dantza taldea. Dena den, aurretik ere bazegoen mutilena bakarrik zen dantza taldea. 1962an, Udalaren ekimenez, 15-19 urte bitarteko mutilak prestatu ziren. Lehen aldiz, 1962ko abuztuaren 15ean izan zuten ekitaldia. Ondorengo herriarrek osatzen zuten taldea: Eulogio Errotaetxekoa, Alfredo Olazabalgoa, Manuel eta Jose Lontxo Antolar azpikoak, Migel eta Erramun Bekoetxekoak, Juan Domingo Etxeberribengokoa, Gregorio Jauregikoa, Jose Luis Zantagoitikoa eta Jose Eguzkitzakoak. Irakasleak, berriz, Jose Murua, Ander Letamendia eta Inaxio Azpiazu Ormaiztegikoak. Txistulari, Paskual Larrañaga, ormaiztegiarra. Urtero herriko festetan dantza saioa egiten zuten eta 1968ko festetan izan zen azken ekitaldia.

Akuilu lana

Gabirian dantza talde sortzeko akuilu lana egin zuena Jose Daniel Garcia de Andoin Apaolaza izan zen. Orbegozon lan egiten zuen Patxi Lizarazu eta Jesus Gorrotxategi herriarrek. Jose Daniel Garciak Lurra dantza taldea sortu zuen Urretxun. Aurretik Arrasaten ikasten zebilela hango dantza taldean ibili zen. Beraz, Jose Daniel Garcia de Andoin, Jose M. Sodupe 'Astotxo' eta Milla Agirrerekin batera hasi ziren Gabirian dantza erakusten. "Trenez etortzen ginen eta gero apeaderotik gora taka-taka oinez, baina gus-tura halere", gogoratu zuten 1996ko 'Makilari' aldizkarian. "Azpimarratzekoa da Gabirian aurkitu genuen borondatea. Ni asko markatu ninduen Gabiriakoak. Gabirian pasa genuen urte eta piko horretan egin genuen guztiak; horregatik askotan jarri dut eredu Gabiriako adibidea eta toki askotan kontatu dut", aitortu zuen Garcia de Andoinek.



Goiko argazkian, Goruntz dantza taldea sortu zeneko taldea, 30. urteurrenean ateratako argazkian.

Eskuinekoa ere, duela 5 urtekoa da bertan dantza taldea ageri da, 25. urteurrenean.

**Argazkiak:
Edurne Blanco.**

Lehenengo irtenaldiak Urretxura eta Zumarragara egin zituzten. "Garai hartako edozein dantza talderen pare ibili zen Gabiriakoa ere. Oso ondo gogoratzen naiz, eta taldean askotan komentatu izan genuen, hasieran, hemengo mutilei asko kostatzen zitzairen dantzan ikastea, baina behin ikasita zerbait propioa zuten", gaineratu zuen.

Entsaioak, igandeetan izaten ziren, meza ondoren, Parrokiako saloian. Juanita Iztuetak 'Makilari' aldizkarian zehaztu zuenez, "uda aldera, aste barruan ere egiten genituen, beti ere aktua-zio gehienak uda partean baitziren".

Goruntz

Juan M. Asurabarrena, Jesus Gorrotxategi, Juanita Iztuetak, Garbiñe Jauregi eta M. Angeles Maiz dantza irakasleak eta Patxi Lizarazu



eta Jesus Mari Maiz txistulariek sortu zuen Goruntz dantza taldea, duela 35 urte. "Dantzak prestigioa zuen eta herriko festetan derrigorrezkoa zen helduen dantza talderen bat. Bestalde, dantza taldeak momentu eta garai hartako giro politikoa-ren adierazgarri ziren, Eus-

kal Herriko kultura eta herri mugimenduaren adierazgarri. Gainera, gazteak biltzeko eta erlazionatzeko bidea zen, neska-mutilen arteko harremanak egiteko", gogoratu zuten hauek ere 1996ko Makilari aldizkarian.

M. Angeles Maizek gaineratu zuenez, "Goruntz

Gaur egungo basi berriak.



Gaur egungo dantzari txikiak.



dantza taldea sortu genuenean, inguruko herri askotan zegoen dantza taldeak sortzeko mugimendua. Herri mugimenduaren barruan kokatu behar dugu, gazteek zerbait egin nahi genuen: antzerkia, dantza, eta antzeko beste zenbait ekintza, kultur arloa bultzatuz herria suspertu beharra zegoen eta testuinguru horretan zegoen dantza ere folklore aldetik erreibindikazioa eta gazteak biltzeko aukera ezin hobeak.

Txistulariak

Txistulariak dantza taldea sortu baino urtebete lehenago hasi ziren. "Txistulariak, Osinalde elkartearen sorrerarekin hasi ginen mugitzen, zerbait egin behar genuela eta, beno, txistua gustuko genuen, biok animatu eta Ormaiztegiara Pasqualenera", dio Jesus Mai-

zek. "Dantza taldea sortzerako guk txistua jotzen genuen, moldatzen ginen behintzat. Herrian festetan beti kanpotik ekartzen ziren eta esan genion elkarri "kontxo, hi, ikasi egin behar diagu", gaineratu du Patxi Lizarazuk.

Jesus Maizek soldadutza bandan egin zuen. "Dantza taldea sortu zenean, ni soldadutza nengoen, Bandan ibili nintzen, txistua jotzen nekielako, bandera juratzea ere txistu jotzen nuen".

Oztopoak

Dantza taldea sortzeko garaian, etxez etxe ibili ziren Patxi Lizarazu eta Jesus Gorrotxategi inbitazioak pasatzen eta gurasoak animatzen umeak dantzan haste-ko.

Jesus Gorrotxategik gogoratu duenez, oztoporik nagusienetakoa lokala iza-

ten zuten. "Apaizak askotan ez zuen oso begi onez ikusten guk han jardutea eta ika-mikaren bat edo beste izan genuen, karta bat ere idatzi genion alkateari behin eta beno, konpondu ziren gauzak".

Jantziak egiten, Maria Jesus Garciak eta Arantxa Maizek lan asko egin zuten huskeriaren truke. Diru kontuei dagokienez, irteeretan, herrietako festetan eta antolatzaileek emandakoarekin moldatzen ziren.

Etenaldia

Lau-bost urteko etenaldia izan zuen Goruntz dantza taldeak eta 1985. urte inguruan hasi zen berriz ere. "Arrazoietako bat, haurrak ikastera kanpora, gehienak Ormaiztegiara, joaten zirela eta, herrian ez zirelako elkartzen hasi omen zen. Irakasle bezala 6 lagun hasi zi-

ren: Juli, Arantxa, Iñaki Oiartide, Lierni, Iñaki Maiz eta Kutx".

Belaunaldi berriak sartzen joan izan dira beti Goruntz dantza taldean. "Dantzari txiki egunak, maiatza eta ekainean, igandero izaten ziren eta jendea asperitzen hasi zen eta pixkanaka-pixkanaka dantzari txiki taldetik irteten hasi ziren. Era berean, erakusleak ere urruntzen hasi ziren. Poliki-poliki, dantza taldea beste talde baten esku gelditu zen: Maite, Pake, Lontxo. Ibon. Iñaki, Eider, Eli eta Alaitz. Garai hartan oso ume gutxiarekin aurkitu ginen, dantza taldea gure esku gelditu zenean, jende dextentek aldegin baitzuen. Garai hartan genekizkien dantzak mantentzeko lana bakarrik egin genuen. Jendea aspertu ere egin zen, eta dantza taldea kilin-ko-

Pottoka
KAFETEGIA

● Ogitartekoak

Harpidetza txartela

Urteko kuotak:

☐ **Goierri** 24 euro

☐ **hitza** 60 euro

☒ **Goierri** + ☒ **hitza** 65 euro

Egin ☒ bat aukeratutako kaxan ☐

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria: NAN:

Telefono zenbakiak:

Kontu zenbakia(20 digitu):

Bidali txartel hau: **Goierri**, **Urbialde plaza 7 behea**, **Beasain**

lon, ez atzera ez aurrera, gelditu zen. Bi biderekin aurki ginen, edo bertan behera utzi edo jende berriarekin hasi. Noski, bigarren aukera hartu genuen. Eñaut, Aimar eta Haritz hasi ziren erakusten, eta hauekin batera Ormaiztegi-ko neska talde bat: Izar, Itziar, Arantzazu, Edurne eta Ainara. Hauekin batera, berriro ere zerotik hasi ginen orain dela 13 bat urte, kanpoko jendea ere taldean onartuz”.

25. urteurrena eta Bartzelonako irteera

1996an ospatu zuten 25. urteurrena. Belaunaldi guztiak elkartu ziren eta festa polita egin zuten. Urteurren horretarako, dantzarien jantzi berriak egin zituzten. Jantziak ordaintzeko, Gabonetan kantuan diru biltzen aritu ziren herriko dantzariak.

1999ko irailak 18 eta 19 egunak ez dituzte oraindik ere ahaztu Goruntz taldekoek. Lehenengo irteera handia egin baitzuten, Bartzelonako Esplugasera. Gogor lan egin behar izan zuten. “Entsaio pilo bat egin ziren irteera hura prestatzeko. Baina ilusio handia geneukan, bidaia berezia baitzen guretzat. Autobusez egin genuen bidaia, bertan lo eginez. Jendearen erantzuna oso ona izan zen”, gogoratu du Eneritz Gorrotxategik.

2000. urtean umeen taldearen ardura hartu zuen talde berriak. Ezkio-Itsasotik eta Ormaiztegitik haur dezente hurbildu ziren Gabiriara. 2001. urtean, “30. urteurrena aitzakiatzat hartuta, genituen umeak eta geuk, helburu bezala, dantza berriak ikasi genituen. Iparraldeko dantza batzuk, eta dantza zaharrak ere berreskuratu genituen”, dio Gorrotxategik. 30. urteurrenean omenaldia egin zioten, Izaro eta Etxahun taldekide izan zirenei.



Goruntz dantza taldea, 1972an. Argazkia: Jexux Gorrotxategi.



Goian, 199. urtean, 25. urteurrenean, Goruntz dantza taldea. Bebeko argazkia San Roke egunean ateratakoa da. Argazkia:k Edurne Blanco eta Jexux Gorrotxategi.



Ormaiztegi

Paxkual Larrañaga musika zikloa

Ekainaren 15etik 23ra bitartean, Paxkual Larrañaga musika zikloa izango da Ormaiztegin. Jarraian duzue egitaraua:

Ekainak 15: Xabier Lizasoren kontzertu pedagogikoa, 18:00etan, Kultur etxeko aretoan.

Ekainak 18: 11:00etan, txistularien kalejira herriko kaleetan. 12:45ean, Lazkaoko Xanbe haur abesbatzaren eta Ormaiztegiko abesbatzaren kontzertuak, elizan.

Ekainak 22: Donato Goienetxe perkusiolaria eta Xabier Arakama trikitilariaren kontzertua, 19:30ean, Kultur Etxeko aretoan.

Ekainak 23: Txindata musika eskolako kalejira kaleetan zehar eta 18:00etan kontzertua eliza atarian.

Idiazabal

Fermin Muguruza

Ganbarako Tertuliak saioaren barruan, Fermin Muguruza musikaria izango da hizlari ekainaren 15ean. Ohi bezala, Pilarranean izango da, 19:30ean.

Herri Eskolaren festa

Aita Iparragirre Herri Eskolaren 25. urteurrena eta ikasturte amaiera ospatzeko, festa izango da ekainaren 17an. Argazki erakusketa, haurrentzako jolasak, bazkaria, abesti saioa eta eguna amaitzeko, Kiñu taldearekin dantzaldiza izango da.



Segura

Haur abesbatzen jaialdia

Ekainaren 10ean, larunbatean, haur abesbatzen jaialdia izango da, Segura sortu zeneko 750. urteurrenean. Zegamako Orkatx Txikikoak eta Segurako txikienak arituko dira kantuan.

Segura

San Joan jaiak

Ekainaren 16an hasiko dira San Joan jaiak Seguran. Jarraian duzue egitaraua:

Ekainak 16, ostirala:

19:00etan: Futbitoko final aurreak Baratze Pilotaleku ondoan.

23:00etan: Dantzaldia Gaubela taldearekin, plazan, tabernariak antolatuta.

Ekainak 17, larunbata:

10:00etan: Gipuzkoako bola eta toka txapelketa, bolatokian.

16:00etan: Euskadiko toka txapelketaren finalaurrekoa, plazan.

18:00etan: 30. Euskal Herriko dantza txapelketa, finalaurrekoa, Baratze pilotalekuan.

18:00etan: Gipuzkoako bola eta toka txapelketa, bolatokian.

19:00etan: Gazteen jokoak plazan.

22:30etan: Jon Maiaren 'Segura dantzan' ikuskizuna, Baratze pilotalekuan.

23:00etan: Dantzaldia Gaubela taldearekin, plazan, tabernariak antolatuta.

Ekainak 18, igandea: Korpus eguna:

09:30etan: San Joan txirrindulari proba, gazteen mailakoa.

11:00etan: Euskadiko toka txapelketaren finala, plazan.

11:00etan: Meza nagusia.

Ondoren: Prozesioa.

18:00etan: 30. Euskal Herriko dantza txapelketa, finala, Baratze pilotalekuan.

Afalaurretik, Herriko trikitilari taldea giroa alaitzen.

21:00etan: Herri afaria, ardo partiketaekin.

Afalondoren: Herriko trikitilari taldea giroa alaitzen.

Ekainak 22, osteguna: moztortuen eguna:

18:00etan: Irlandako pilota selekzioari ongi etorria udaletxean.

20:00etan: Zopa pertzaren jaitsiera Segurako albo-radaren doinuaz, pregoia eta bokadutxoak plazan, Elorri Kultur Elkartek antolatuta.

23:00etan: Dantzaldia Laket taldearekin, plazan.

01:00etan: Moztortuen desfilea eta saribanaketa, banaka eta taldeka sailetan, plazan.

LEIAR

KRISTALDEGIA

ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g

☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea

☎ 943 88 60 70

BEASAIN

izal

☎ 943 187 049

☎ 943 187 045

Ondramuño baserria

IDIAZABAL

IMAZ eta CONTRERAS

PINTURA eta PAPERGINTZA

'XIX. mendeko historia militarra Euskal Herrian' weba eta 'XIX. mendea hamarkadetan' bildumagarri digitala, Zumalakarregi museoaren web gunean


Historia denon eskura interneten

Zumalakarregi Museoa, Euskal Herriaz jakiteko eta gozatzeko erreferentzia den zentroak, heldu, gazte zein umeei zuzendutako XIX. mendeko historia militarra Euskal Herrian web-a eta XIX. mendea hamarkadetan bildumagarri digitala aurkeztzen ditu. Bi produktu birtual berri hauek museo-ko web gune orokorrean sareraturik daude. Web gune hau oso dinamikoa da eguneratze etengabeekin eta espezializatutako eta dibulgaziozko askotariko eskaintzekin.

E-gipuzkoak finantzatu-tako XIX. mendeko historia militarra Euskal Herrian, web gune berri honek Lehenengo Karlistadako gertaeren begirada eskaintzen du, ekintza eta bataila nagusiak deskribatuz, liskar hauetan parte hartutako armada sailak, baita protagonista nagusien biografiak ere, testu, mapa eta grabatuekin.

Proiektu honek lehen karlistadako militar arloetan bereziki interesaturik dauden pertsonen eskaera asetzea du helburu, museo-ko bisitariei egindako galdetegi-tako emaitzak frogatu bezala.

Webak, hiru gaikako atal ditu, bata armada sailai buruzkoa, bestea bataila nagusiei buruzkoa eta hirugarrena, protagonisten biografiei buruzkoa, internautek batetik bestera ibiltzeko aukera eskaintzen dien loture-



Francisco Sainz. "Acción de Ormaiztegui" 'Panorama español, crónica contemporánea'. III. tomoa, Madrid 1845. Zumalakarregi Museoa

Ormaiztegi 1835-I-3

Zumalakarregi 1835aren hasieran Nafarroatik Gipuzkoara pasa zen 2.000 bat gizonekin, Jauregi 'Artzaiaeren' Txapelgorriekin borrokatzeko asmoz. Urretxura hurbildu zen bolondres liberalen bila, baina hauek Bergaran zeuden, Carratalá generalak agintzen zuen ejerzito gorpuzaren babesean. 8.000 bat soldaduk osatzen zuten gudal-dean beste generalen presentzia ere nabarmena zen: Espartero, Lorenzo, Iriarte eta Quintana. Guzti hauek, Zumalakarregi gertu zutela jakitean eta soldadu kopuruaren nagusitasunean oinarrituz, urtarilaren 2.ean eman zuten eraso Ormaiztegi inguruan. Karlistak Muti-loa eta Ormaiztegi arteko mendi gainean zain zeuden. Borrokak oso gogorrak izan ziren, liberekin behin eta berriz baionetaz oldartuz, baina karlistek posizioei eutsi egin zieten ilunabarrera arte. Gauez karlistak Seguran bildu ziren, liberalak, berriz, Ormaiztegin, guda zelaietan talde bakoitzeko 500 bat gorpu zetzaten bitartean. Biharamunean liberekin berriro ekin zioten erasoari, hala ere, bezperan baina arinago, eguerdirako etsiz. Jauregik Ordiziara jo zuen erretiradan, Carratalá eta besteak Bergararuntz zihoazen bitartean, karlistak gainean zeramazkitela. Liberalak porrota estaltzen saiatu ziren. Donostian garaipena kanpaiak joz ospatu zuten. Egiaren berri ekarri zuen gizon bat gartzelaratzera iritsi ziren, azkenean emaitzaren baieztapena jaso zuten arte.

kin, informazio zehatzagoa eskainiz. XIX. mendeko historia militarra Euskal Herrian gunearen diseinuari esker, eduki berdineko modulu elkarreragilean bihurtzeko aukera eskainiko du eta museo-ko erakusketa iraunkorrean kokatuko da.

XIX. mendeko historia militarra Euskal Herrian honako helbide hau du: www.zumalakarregimuseoa.gipuzkoakultura.net/19 mendekohistoriamilitarra

Aurreko argitalpen digital hilerokoen ('Karikaturak' eta 'XIX. mendeko jendea') arrakastaren ondorioz, bildumagarri berri bat sareratu dute, iragana modu erakargarri batez ezagutzera emateko: "XIX. mendea hamarkadetan", mende horretan ibilbidea egitea eskaintzen du eta gertaera politiko, sozial eta kulturalak ezagutzera ematen ditu, hileroko faszikulu euskarrian. XIX. mendeko historiaren kaleidoskopioa, ikuspuntu desberdinak kontutan izateko modu bat da, gertaerak, pasadizoak, gizakien bizitzetako gorabeherak, zientziaren garapena eta makina bat begirada gehiago.

'XIX.mendea hamarkadetan' bildumagarriak honelako helbide hau du: www.gipuzkoakultura.net/euskeramuseos/zm/decadas.php Faszikulua hilabetero jaso nahi dutenek, ondorengo helbidera idatz dezakete: mzumalakarregi@gipuzkoa.net



kutxa

Iragarki laburrak:

Hemendik aurrera Goierritarrako iragarki laburrak kobratu egingo dira,

hitz bakoitzeko 0,60 euro.

Horren truke, iragarkia bi aldiz argitaratuko da Goierritarran, behin Goierriko Hitzan eta 7 egunez egongo da www.goierrikohitza.info webgunean.

Harremanetarako:

943 88 96 12

goierritarra@topagunea.com
gh@goierrikohitza.info

ETXEBIZITZAK

errentan eman

Jakan apartamentua alokatzen da igerilekuarekin, uztail osoan eta abuztuaren 15etik 31ra bitartean. 676615361.

Apartamentua alokatzen da. Oso berezia, oso polita. 943880044.

Jakan, apartamentua alokatzen da udan. Igerilekuarekin. 943885674 - 943216684.

Ezkarain, apartamentua alokatzen da, udan. 678344604.

LOKALAK

salgai

Beasain erdigunean, denda salgai, bi erakusleiho handirekin. 2 pisutakoa. Aukera asko. 619456317.

GARAJEAK

errentan eman

Ordizian, garaje itxia alokatzen da. 665756560.

IBILGAILUAK

salgai

Seat Ibiza 1.9 D salgai. SS-BF. Egoera oso onean. 659403893.

Knaus soubvin karabana salgai. Abantzearekin eta bizikleta eramatekoarekin. Egoera onean. 639775777.

Renault Clio 1.9 diesela salgai. Egoera onean. 630663859.

Mercedes Vito 112 CDI salgai. 2003. urtekoa. Oso egoera onean eta prestatuta. 653747989.

Renault Traffic 1.9 diesela salgai. 100 zaldi. Combi grisa. 2005 urtekoa. Urtebeteko garrantia. Gehigarri guztiekin. Oso egoera onean. 615729125.

Citroen Saxo VTS - 16 v, autoa salgai. Egoera onean. 630153983.

Opel Kadett GT, 1.800 l autoa salgai. SS-AH. 606837355.

Fiat sando 2.0 furgoneta salgai. 110 zaldi. 2003 urtekoa. 605726596.

Volvo 240 GL Polar (familiarra) salgai. Karrozeria eta motorrez oso ongi. Merke. 677510718.

Volvo V70 D5, salgai. 2002koa, 167 zaldi. 639179821.

Olagi Urte guztian zabalik
Sagardotegia Eguneroko menua
Jatetxea Karta
Sagardotegiko meua
© 943 88 77 26 ALTZAGA



Arkupe

ETXERAKO OIHAL ETA SAGAIK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA



Osinalde s.l.

DESGUAZEA

Tel.: 943 16 22 07 car.osinalde@terra.es
943 88 70 48 Igara industrialdea, z/g
Faxa: 943 88 28 01 ORMAIZTEGI

Kol. zkia.: 764



Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia
Implantologia
Periodontzia
Artikulazio eta ahoko minak

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118

BESTELAKOAK

salgai

Etxeko hainbat tresna salgai: Junkers ur-berogailua, garbigailua, hozkailu konbia, plater garbigailua, etxe barneko atea, eta bainu konpletua. Guztia gutxi erabilia. Ia berria.

Oso merke. Arratsaldeko 3etatik aurrera. 667937875.

Trikitixa anplifikadora salgai, Sanmizk markakoa. 2 mikrofonekin. 1.500 euro. 12 lagunentzako mahai obalatua opari. 637914126.

ANIMALIAK

salgai

Ahuntzak salgai. 630621153.

GALDUTAKO OBJEKTUAK

salgai

Maiatzaren 29an, txakurra aurkitu nuen Otzaurteko koban. Ehiz txakurra da, txuria eta beltza. 606044608. Josu.

LANA

eskaerak

Goierriko jaki enpresa batek dendetarako kudeatzailea behar du. Ekonomi edo/eta bezero arreta kudeaketan bi urte edo gehiagoko esperientzia nahitaezkoa. Soldata interesgarria eta mugagabeko kontratua. Interesatuak CV-a bidali rencinas@sainzconsultores.com erref. GT 574 edo 943297482 fax zenbakira.

Beasaingo ileapaindegi baterako laguntzailea behar da, asteburuetarako. 943881442.

Ingelesko irakasleak behar ditu datorren ikasturterako Sequoia Language Academy-San Benito Ikastolak. Interesatuak curriculumak vhigareda@sanbenito.ikastola.net helbidera bidali.

Laguntzaile lana egiteko prest dauden mutilak behar dira. Igeltseritza edo antzeko lanetan esperientziadunak hobe.

Emakumezkoa behar da azoketan dendari lana egiteko, goizetan. 615764442. Patxi.

Urretxuko taberna baterako langileak behar dira. 615769049 - 943722009.

Beasaingo ileapaindegi baterako profesionala behar da. 696105476.

Sukaldaria behar da Tolosako taberna batean, plater konbinatuak eta pintxoak egiteko. 646022959.

eskaintzak

Emakumea prest dago etxekolanak egin eta haurrak edo agureak zaintzeko. Erdalduna. 620743076.

Bi neska eskaintzen dira, orduka garbiketan aritzeko: etxebizitzak (garbiketa osoak), sukaldeak, tabernak, atari eta eskaratzak (bizilagunen atariak), lokalak, obrak, e.a. Eskarmentu handia. 657719617 - 943683057.





RENAULT

LAZKAO GARAJEA

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxe: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO



zuhaitzki
S A
Zurgindegia

Egurrezko lehioak, kontraleihoak, atea eta eskailerak neurria.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxe: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU



ikaskide
irakaskuntza zerbitzuak
Joan Iturralde, 5 Beasain 943 160 120
www.ikaskide.net

IKASKETA TEKNIKAK

- ✓ Irakurmena
- ✓ Azpimarraketa
- ✓ Eskema
- ✓ Laburpena
- ✓ Buruz ikasi
- ✓ Azterketa prestatu

INFORMATIKA

- ✓ Photoshop
- ✓ Power point
- ✓ Web orrien diseinua
- ✓ Office
- ✓ Mekanografia

INGELERA

- ✓ Maila guztiak
- ✓ Haurrak: 6 urtetik aurrera
- ✓ Azterketa ofizialak prestatzeko aukera (KET, PET, First Certificate)



Ordiziako katekesiaren irteera 1957 inguruan

Goiko ilaran, ezkerretik eskuinera: Arruabarrena, Prexen Olano, M^a Jesus Faus (katekista) eta J. P. Sarasola.

Erdiko ilaran: Mendizabal, P. Garmendia, J. M. Otegi, Aranzegi, Irastorza, Murgiondo eta Castañones.

Beheko ilaran: Atxotegi, J. Ezenarro eta Aldanondo.

PSIKOLOGI KLINIKOA

Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

biok
zerbitzuak

kudeaketa
fiskala
kontablea
merkatala
laborala

Tel 943 88 44 00
Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
Ordizia Goierri, 12

GRAFICAS EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
T/F 943 88 94 82

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN

☎ 943 02 73 58
Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5
BEASAIN

✕ Jabekideen komunitatea osatzea
✕ Komunitateen kontabilitatea
✕ Akten idazketa
✕ Aurrekontuen eskaera
✕ Aholkularitza legala
✕ 24 orduko asistentzia
✕ e.a.

AUZOKI
Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599


Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486



zure ikusmena zainduz
zure estetikaren oinarrizko osagaia
Nafarroa etorbidea, 14 Beasain T 943 88 31 10 www.argioptika.com

BVLGARI *Salvatore Ferragamo* EXTĀ ROMEO GIGLI

E W M E



Nazaret zentroa

www.nazaretzentroa.com - Aldakoenea, 36 - Bº Egia
20012 DONOSTIA - Tel. 943 326666 - Fax. 943 326384

Batxilergoa

- 1 Giza eta Gizarte Zientziak
- 2 Natura eta Osasun Zientziak

Lanbide Zikloak

Goi Mailako Zikloak

- 1 Administrazioa eta Finantzak
- 2 Informatika
- 3 Marketina
- 4 Nazioarteko Merkataritza
- 5 Idazkaritza

Ziklo Ertainak

- 1 Administrazio-Kudeaketa

**Ikasgaiak euskaraz,
erdaraz eta ingelesez
ematen dira**



Irakaskuntza ertain
eta lanbiderakoak
Enseñanzas medias
y profesionales

JARDUNALDI IREKIAK

Hilabetea	Martxoa		Apirila		Maiatza	
Eguna	24	25	28	29	26	27
Ostirala	●		●		●	
Larunbata		●		●		●
Ordua	18h. 11h.	18h. 11h.	18h. 11h.	18h. 11h.	18h. 11h.	



kutxa, lankidetzako gizarte ekintza



Orain Zaldibian

Elbarrena industrialdean

Tel.: 943 888 232

herrietako jaiak
despedidak

Gipuzkoako mozerro dendarik handiena

